



## II. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### Basauriko Udala

**2024ko ekainaren 5eko 2278/2024 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Garapenerako lankidetzako proiektuetarako 2024ko udal diru laguntzak emateko deialdia». BDNS (Identif.): 766173.**

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/766173>).

#### **Lehenengoa. — Onuradunak**

Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak, adibidez: GGKEak, erlijio elkarteak, fundazioak eta horien pareko erakundeak, baldin eta haien estatutuetan, helburuetan, egin-kizunetan edo txostenetan berariaz jasota badago garapenerako lankidetzak.

#### **Bigarrena. — Xedea**

Txirotutako herrialdeetan garapenerako lankidetzako proiektuak gauzatzea.

#### **Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak**

2024ko maiatzaren 9ko 1859/2024 Alkatetza Dekretuak onetsi ditu Kooperazio Arloaren udal diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak, eta 2024ko maiatzaren 27ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean —101 zenbakiduna— argitaratu dira.

#### **Laugarrena. — Zenbatekoa**

Deialdi honen zenbateko osoa 140.000,00 euro da.

#### **Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea**

Hilabete, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu osteko biharamunetik hasita.

#### **Seigarrena. — Diru-laguntzak zurrizteko epea**

Gehienez 3 hilabeteko epea egongo da emandako laguntzak zurrizteko, diruz lagundutako proiektua amaitzen den datatik zenbatzen hasita.

Basaurin, 2024ko ekainaren 5ean. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren